**Espediente Zenbakia: 09-306**

Ametxeko Artezkaritza-Batzordeak bilera egin du, 2009ko urriaren 8an, arratsaldeko 18:00etan, Zelaieta Zentroko batzargelan.

**Bertaratuak:**
**Presidentea**: Sara Chamizo Díez andrea.
**Batzordekideak:**
Beatriz Calvo andrea
Javier Atxurra jauna
Belén Saralegi andrea
Mikel Iriondo jauna

Ana Garachena, Ametx erakunde autonomoko lege eta kontabilitate teknikaria.
Javier Cortazar, Ametx erakunde autonomoaren aholkulari juridikoa

**Ez da bilerara etorri:**
Vicente Silva jauna

**Idazkaria**:
Ines Gandarias, Ametx erakunde autonomoaren euskara-arduraduna.

**1.- <u>AURREKO BILERAREN AKTA IRAKURRI ETA ONARTU.</u>**

Aho batez onartu da aurreko bilerari dagokion akta, hirugarren puntuan honako zuzenketa hau egin ondoren:

**2.- <u>AMETX ERAKUNDE AUTONOMOAREN ZERBITZUENGATIKO PREZIO PUBLIKOEN 2010EKO ORDENANTZARAKO PROPOSAMENA.</u>**

Ametx erakunde autonomoaren zerbitzuengatiko prezio publikoen 2010eko ordenantzarako proposamena aurkeztu du presidentea den Sara Chamizok, eta honakoa puntu hauek zehaztu ditu:

2009ko ekitaldirako indarrean dauden prezioei eutsiko zaie, eta proposatzen diren aldaketen bidez lortu nahi dena da zerbitzuen erabileraren poderioz erantsi beharreko alderdi batzuk islatzea. Horrela, musika eskolari eta udal euskaltegiari dagozkien ataletan, honako paragrafo hau txertatu da:

Udal Euskaltegiko tasen ordainketetan edo ordainagirietan behin eta berriro justifikatu gabe atzeratuz gero, titularrari edo onuradunari baja emango zaio Udal Euskaltegiko zentroan, zerbitzua hartzeko interesa bertan behera utzitzat hartuko baita.

***1.- <u>LECTURA Y APROBACIÓN DEL ACTA DE LA SESIÓN ANTERIOR.</u>***

*Se aprueba por unanimidad el acta de la sesión anterior.*

***2.- <u>PROPUESTA PARA LA ORDENANZA DE 2.010 DE PRECIOS PÚBLICOS CORRESPONDIENTES A LOS SERVICIOS DEL ORGANISMO AUTÓNOMO AMETX.</u>***

*La presidenta, Sara Chamizo, presenta la propuesta para ordenanza de 2.010 de precios públicos correspondientes a los servicios del Organismo Autónomo Ametx, detallando los siguientes aspectos:*

*Se mantienen los precios vigentes en el ejercicio 2.009, y las modificaciones introducidas los son en aras de reflejar aspectos que con el uso de los servicios se ha considerado necesario incluir. Así, en los apartados correspondientes a las escuela de música y el euskaltegi municipal se han insertado el siguiente párrafo:*

*La demora reiterada e injustificada en el abono del recibo o de las tasas relacionados con la Musika Eskola/el Euskaltegi Municipal se entenderá como renuncia del interesado/a a la recepción del servicio, lo cual conllevará la baja del titular o beneficiario/a en la Musika Eskola/el*

ametx
erakunde autonomoa

Batzorde kideen egindako galderei erantzunez, adierazi du erreziboen itzulketak gertatu izan direla, eta horrek izapide konplikatuak egin beharra sortzen duela. Diru-kopuruak larritzeko modukoak izan ez arren, kasu batzuetan behin eta berriro gertatu da.

Beste alde batetik, aurten lehenengoz emango diren dantza diziplinei dagozkien tarifak ere gehitu dira ordenantzarako proposamenean.

Bozketa eginda, bertaratutako Artezkaritza Batzordeko kideek, Chamizo, Saralegi eta Calvo andreek eta Iriondo eta Atxurra jaunek hainzuzen, Silva jauna ez baita bileran izan, aho batez onartu dute proposamena Ogasun Batzordera helaraztea, onartua izateko urratsak eman daitezen.

**3.- <u>2009-2010 IKASTURTE HASIERA UDAL EUSKALTEGIAN.</u>**

Artezkaritza Batzordearen presidenteak adierazi duenez, maiatzaren 25ean adostutakoaren ondoren, uztailaren 30ean emandako dekretuaren bidez, hil bereko 31ko dataz indarrean jarri zen Sabi Rekalde Zarandona zuzendari kargutik kentzeko erabakia, eta hala jakinarazi zitzaien Udale Euskaltegiko langileei Zelaietako erregistroan irteera abuztuaren 7an eman zitzaion idatziaren bidez. Bertan adierazi zenez, irailean zuzendaria izendatzeko neurriak hartuko ziren.

Irailaren 29an euskara zerbitzuaren zuzendariak txostena egin zuen, presidenteak ontzat emana, adierazirik bere sasoian adostutakoari jarraiki, eta HABEren lege zerbitzuek egindako txostenaren inolako eragozpenik ez dagoelarik, Atxarte Bilbao Gorostiagari legokiokeela zuzendaritza bereganatzea. Txosten hori Udal Euskaltegiko langileei helarazi zitzaien eta irailaren 30ean dataz sarrera eman zitzaion Zelaietan interesdunak izendapena ez onartzearen arrazoiak argudiatuz aurkeztu zuen idatziari.

Era berean, beste bi idatziri eman zitzaien sarrera Zelaietako erregistroan egun berean, Ametxen presidenteari eta euskara zuzendariari zuzenduta

*Euskaltegi Municipal.*

*A pregunta de los miembros de la Junta, ha respondido que se trata de devoluciones de recibos, que generan una tramitación con cierto grado de complicación. Sí bien no son cantidades alarmantes, se ha observado que hay casos reincidentes.*

*Se han introducido, además, las tarifas correspondientes a las disciplinas de danza, que se imparten por primera vez en la escuela de música Zubiaur.*

*Realizada la votación los miembros de la Junta Rectora Sras. Chamizo, Saralegi y Calvo y Sres. Iriondo y Atxurra han aprobado la propuesta por unanimidad, en ausencia del Sr. Silva, para que sea elevada a comisión de Hacienda del Ayuntamiento de Amorebieta-Etxano.*

***3.- <u>COMIENZO DEL CURSO 2009-2010 EN EL EUSKALTEGI MUNICIPAL.</u>***

*La presidenta de la Junta Rectora comunica que tras el acuerdo alcanzado en la reunión de fecha 25 de mayo, por decreto dado el 30 de julio, con fecha de 31 del mismo mes entró en vigor el cese de Sabin Rekalde Zarandona como director del Euskaltegi, decreto que fue notificado a los trabajadores/as del centro en escrito registrado de salida de Zelaieta el 7 de agosto, con la indicación de que en septiembre se tomarían las medidas conducentes al nombramiento del nuevo director/a.*

*Con fecha de 29 de septiembre la directora del servicio de euskara realizó un informe que contó con el visto bueno de la presidenta y según el cual, en base al acuerdo adoptado en su día y corroborado por el informe legal remitido por HABE, correspondería a Atxarte Bilbao Gorostiaga la asunción del cargo de directora del centro. Dicho informe fue remitido a los trabajadores/as del Euskaltegi y con fecha de 30 de septiembre se registró de entrada en Zelaieta un escrito de la interesada en el que argumentaba los motivos para la no aceptación del nombramiento.*

*Se registraron asimismo, con la misma fecha de 30 de septiembre, dos escritos de la delegada de personal de Ametx, dirigidos a la presidencia y*

hurrenez hurren. Sortutako legez kanpoko egoera albait arinen konpontzeko eman beharreko urratsei ekiteko eskatu zuen idatzi horietan Ametx erakunde autonomoko langileen ordezkariak.

Euskaltegiko irakasleek bilera egin zuen irailaren 30ean eta egun berean sarrera eman zioten bileraren aktari Zelaietako erregistroan. Besteak beste direla, zuzendaritzarako proposamena egin zuten azaroaren 25eko 29/1983 HABESEA legean ezarritako eskubideak erabilita eta, hala, Idoia Zuloaga Llantada proposatu zuten zuzendari eta Miren Josu Uriarte Olaeta idazkari, proposamen biak aho batez eginda.

Ametxen presidenteak eta euskara zuzendariak bilera izan zuten HABEren zuzendari nagusiarekin, zentroaren egitekoen behar bezalako garapenerako konpontzeko dauden hainbat gairen gaineko azalpenak emanik eta gertatu diren eta gerta litezkeen desdoitzeei irtenbidea emateko borondatea adierazirik. Horretarako erabat beharrezkoa da indarrean dagoen legerian zenbait kontzeptu eta puntu argitzea eta zehaztea, eta horretarako kontsulta egin da, HABEren zuzendaritza nagusira zuzenduta.

Euskaltegiaren egoeraren eta burututako ekimenen gaineko azalpenak eman eta ikastetxeko irakasleek 2009ko irailaren 30eko dataz egin duten proposamena aztertuta, bilerara bertaratutako Artezkaritza Batzordekideek, aho batez, hau da, Chamizo, Saralegi eta Calvo andreen eta Iriondo eta Atxurra jaunen aldeko botoez, honako hau ebatzi dute:

- Ez da onartuko Amorebieta-Etxanoko Udal Euskaltegiko irakasleek egindako proposamena. Horren arabera, Idoia Zuloaga izango litzateke zentroko zuzendaria, eta Miren Josu Uriarte Olaeta bertako idazkaria. HABE gai honi dagokionez ematekoa den ebazpenari itxarongo zaio.

- Lan-egutegiaren proposamena atonduko da 2009-2010 ikasturterako, gero langileek gauzatuko duten egutegia negoziatzeko oinarri gisa.

**7.- <u>NORBERAK LEKARKEENA.</u>**

Eztabaidatzeko beste gairik ez zegoela,

*dirección de euskara respectivamente, solicitando se dieran los pasos necesarios para solucionar cuanto antes la situación ilegal creada.*

*El colectivo de profesores/as del euskaltegi municipal se reunió en claustro el día 30 de septiembre, registrando el mismo día el acta correspondiente a dicha reunión, en la que se expone, entre otros puntos, que haciendo uso de los derechos reconocidos en la Ley HABESEA 29/1983 de 25 de noviembre, proponen por unanimidad a Idoia Zuloaga Llantada como directora del centro, y a Miren Josu Uriarte Olaeta como secretaria.*

*La presidenta de Ametx y la directora de euskara mantuvieron el día 7 de octubre una reunión con la dirección general de HABE, en la que se expusieron los temas pendientes de resolución para un correcto desarrollo de las funciones del centro, y la voluntad por solucionar los desajustes que hayan podido y pudieren producirse, para lo cual resulta de total necesitad la aclaración de determinados conceptos y puntos establecidos en la legislación vigente, para lo cual se realiza una consulta dirigida a la dirección general de HABE.*

*Tras la exposición de la situación actual en el euskaltegi, así como de las iniciativas emprendidas, y examinada la propuesta realizada por el claustro de profesores y profesoras del mismo con fecha de 30 de septiembre, la Junta Rectora, por unanimidad de los presentes, esto es, Sras. Chamizo, Saralegi y Calvo y Sres. Iriondo y Atxurra, han adoptado la siguiente resolución:*

*- Rechazar la propuesta remitida por el claustro de profesores y profesoras del Euskaltegi Municipal de Amorebieta-Etxano según la cual la directora del centro sería Idoia Zuloaga Llantada y la secretaria del Mismo Miren Josu Uriarte Olaeta, y permanecer a la espera de la resolución de HABE en lo concerniente al punto de la dirección.*

*- Confeccionar una propuesta de calendario laboral para el curso 2009-2010 como documento base para la negociación del mismo.*

***7.- <u>RUEGOS Y PREGUNTAS.</u>***

*No habiendo más temas que tratar, se da por*

amaiera eman zaio bilerari, iluntzeko zazpiak eta hogeian, eta guztiaren akta jaso da.

*finalizada la sesión a las siete horas y veinte minutos, extendiéndose la presente acta.*

Amorebieta-Etxanon, 2009ko urriaren 8an

| | |
|---|---|
| PRESIDENTEA | IDAZKARIA |
| OE | |
| Sara Chamizo Díez | Ines Gandarias |